

Denboraren makina
1582ko hamar
egun jan zituen
eliza katolikoak

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Hernio mendian,
kobazuloan
barrena

ARGIA

erdiko kiera

kultura eta aisia

Haize berriak txistuarentzat



JOSEBA ZABALZA

Txistua, soinu-tresna zaharkitua? Gehienentzako kalejira, fandango eta arin-arinaren bueltan geratu zen aspaldian. Afinazio txarra duela, gainontzeko soinu-tresnekin jotzeko ez duela balio, kalerako tresna dela... Jagoba Astiazaran eta Gaizka Sarasola, txistulari modernoan adibideetako batzuk izan daitezke. Txistua bizirik dagoelako; txistua garaikidea eta modernoa izan daitekeelako.

LEIRE GOÑI

2007ko urriaren 14a

ARGIA

29

Jagoba Astiazaran



beste ere estreinatu dugu. Durangon bertan musika garaikidea jotzen dugunean kontzertu arrakastatsua izaten da. Gero eta musika moderno gehiago egiten da. Gaur egun ohikoa da txistua harizko laukotearekin batera jotzea, edo metal boskotearekin, pianoarekin, akordeoiarekin...

Jose Ignazio Ansorena zaharkituta geratu da agian? Indarra eta eragina badituela esango nuke, txistulari ezagunena bera izango da...

Zaharkituta? Ezta pentsatu ere! Ansorena maisua da. Entzuleak ezagutzen ditu, badaki non zer jo, eta beti asmatzen du. Hein handi batean txistuak Ansorenari esker jarraitzen du bizirik. Instrumentua herrikoitzen jakin zuen. Mundu tradizionalan itota ez geratzeko lehen urratsa hezkuntza da, eta kontserbatorioan txistu ikasketak sartu eta ikasteko metodoak asmatu zituen. Txistu eta orkestrarako musika sorkuntzan ere ibili zen Tomas Araguesekin batera. Orkestrarekin jotzen txistua bakarlaria izatea eta Kursaalera areto nagusia jendez lepo egoitea instrumentuaren gorengo maila da niretzat. Musika tradizionalari eusten dio, baina garaikidea ere egiten du. Musikenen musika garaikideko irakasle izan nuen eta bere obra batzuk jo genituen, oso modernoak.

JAGOBA ASTIAZARAN zestoarra da, eta 21 urte dauzka. Urteak dira txistua jotzen hasi zela. Batxilergo musikala ikasi zuen, eta orain, goimailako txistu ikasketak egiten ari da Musikenen. Ikasteaz gain, irakatsi ere egiten du, eta dantza talde batzuetan ere jotzen du. “Gaur egun txistua ez dago kalejira, fandango eta arin-arinera mugatua. Gauza modernoak egin daitezke, eta egiten ari gara!”, dio ziur.

Hortaz, txistuaz musika garaikidea egiten da. Baina entzuleak erraz onartzen du?

Normalean musika tradizionalak lekua kentzen dio garaikideari, eta txistuari zer esanik ez. Baina bada musika garaikidea gustatzen zaionik ere. Durangoko Berziztu Txistulari Elkartea alor horretan lan handia egiten ari da. Beste soinu-tresnenez idatzitako obren moldaketak jotzen ditugu, eta obraren bat edo

Hortaz, Ansorena ez dago zaharkituta. Baina, Euskal Herriko Txistulari Elkartea?

Ezta ere. Egia da Berziztu eta Txistulari Elkartearen artean “pike” moduko bat badagoela. Batzuk oso serio hartzen dute “norgehiagoka”. Batak edo besteak antolatutako kontzertu batean parte hartuz gero, beti izaten da baten bat “beste bandokoa” zarela esaten dizuna. Berziztuk musika garaikidea jorratzen du batik bat. Eta Txistulari Elkartek biak, tradizionala eta garaikidea uztartu ditu. Ez zait zentzuzkoa iruditzen bata bestearen kontra aritzea.

Egoera onean al dago txistua?

Egoera ez da txarra, baina beste instrumentu batzuekin konparatuz gero, ez dago onenean ere. Jende gutxi dago txistu munduan. Musikenen Euskal Herri osoko hiru txistulari soilik ari gara ikasten. Bestalde, egoera onean ere badagoela esango nuke, bide berriei ekiten hasi

delako, eta orain arte gutxi egin denez, egiteko asko dagoelako. Ideia oso kontrajarriak dituzten pertsonak daude eta...

Askok tradizioari lotuta jarraitu nahi dutela, alegia.

Txistua euskal kulturarekin oso lotuta egon da, sinbolotzat ere hartu da. Askorentzat tradizioetik ateratzea historia guzti horrekin haustea litzateke. Gaur egungo musika modernoa euskal kulturatik urruti samar dago. Gehienbat erritmoa eta hizkuntza mantentzen dira. Behin, Kepa Junkerari esan nion euskal kulturaren inguruan horrenbeste lan egin eta txistuarekin oraindik ez zuela ezer ere egin. *Gorulari* dantza maketa erakutsi zidan orduan, kuriosoa. Hondo elektronikoan txistua zegoen. Pixkanaka bideak irekitzen ari dira. Agirre danbolin-egileak esaten zuen danbolin berdea egin zuenean jendeak oso gaizki hartu ziola, baina orain, margotutakoak gehiago eskatzen dizkiotela! Hori ere modernoa da. Baita txistu eta silbote soilez grabatutako diskoak kaleratzea ere!

“Orkestrarekin jotzen txistua
bakarlaria izatea eta Kursaalera
areto nagusia jendez lepo
egotea instrumentuaren gorengo
maila da niretzat”

Hala ere, oraindik lan handia egiteke. Afinazioarekin adibidez?

Teknikoki gehiago hobetu behar da oraindik, hobeto afinatu. Behin, konpositore bati entzun nion esaten guztiz afinatua dagoen “txirula” badugula jada, flautina, eta txistua guztiz afinatuz gero, ia-ia flautin bat lortuko genukeela. Ez

dakit horrenbestearainokoa ote den, baina antza izango lukete. Nire ustez, guztiz afinatutako txistuak kolorea eta xarma galduko lituzke. Bi txistu erabiltzea litzateke onena: tradizionala jotzeko bat, eta musika modernoa jotzeko beste bat, afinatuagoa.

Eta hezkuntzan txistuak behar al du aldaketarik?

Bai noski! Euskal Herrian txistulari eta, batez ere, txistuzale asko dago. Solfeorik gabe askok ikasten du txistua jotzen. Nik ez dut esango hori gaizki dagoenik. Horrela ikasten dutenek meritu handia dute, eta asko laguntzen du txistuaren zabalkundean. Baina gero, aurrera egiteko, oztopo bat izan daiteke. Beti alderatzen dut hizkuntzekin. Ahoz aho asko zabal daiteke hizkuntza bat, baina irakurtzen ez badakizu, beste hizkuntza batzuk ikastea zailagoa egingo zaizu. Musika ikasketak ez dira oso kontuan hartzen. Batzuentzat *bobby* bat besterik ez da, eta ezin da horretatik bizi. Nik ere pentsatu nuen “langabetuen ikasketak” zirela goi-mailako txistu ikasketak. Baina lanik ez dut falta!

“Gaur egungo musika
modernoa euskal kulturatik
urruti samar dago”

Gizarteak berak duen hezkuntzaren ikuspegia aldatu beharra dago. Eskoletan bertan, musikari beste ikasgaiei baino garrantzi gutxiago ematen zaio. Beste herrialde batzuetan, ordea, asko baloratzen dute, eta askotan, instrumentuak jotzen ere ikasten dute ikastolan bertan. Lan handia dugu aurretik!



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 • Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 • Hernani -Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Gaizka Sarasola

Gaizka Sarasolak ere ikusten ditu akats batzuk gaur egungo musika hezkuntzan. Afinazio kontuek, berriz, ez dute asko kezkatzen. Esan dezagun musika “esperimental” egiten duela. Lekuan lekuko hots eta soinuekin jotatzen du, eta txistuaren doinu tradizionalekin uztartzen ditu. 2004an Xabier Erkiziarekin batera grabatu zuen *Ixuriak* diskoa da horren erakusle.

Plaza eta aretoetan jartzen diren eszenatokiak urrunak iruditzen zaizkio Sarasolari, hotzegiak, jendeari adierazi nahi diona ondo helarazteko. Azken batean, “musika-tresnak gauzak adierazteko modu bat” baitira. Areto itxiak baino nahia-go ditu labaderoak, aroztegiak, obretan ari diren lekuak, eta leku horien berezko sonoritateak aprobetxatu. “Folklorean oinarrituta nire ikuspuntua eman nahi izan dut”.

Emanaldi bereziak inondik ere! Baina jendea erakartzen al dute?

Batez ere Lesakan eman ditugu horrelako kontzertuak. Bertakoak izanik, herriko jendea etortzen da. Gazteak batik bat. Gauza berriek gazte jendea erakartzen dute. Aretotetan gehiago izaten dira haurrak eta zaharrak. Egia da ez dugula entzulego zabala. Ez da txistua horrela asko zabalduko. Hala ere, ez gara itsutu behar jendea erakartzeko asmoarekin. Modako instrumentu bihurtuz gero, jendeari gustatzen zaiona egitera mugatuta egongo ginateke. Hobe da bakoitzak bere bidea egitea. Berritu egin behar da.

Baina euskal kulturari eta tradizioari horren lotuta dagoen soinu-tresna batekin gauza berriegiak egitea gustuko ez duen jendea ere topatuko duzu.

Txistuak funtzio sozial handia izan du beti, eta alde hori da jendeak gehien ezagutzen duena. Nik ez dut funtzio sozial hori baztertzen, dantza taldeekin, festetan, dianetan... jotzen dut oraindik. Baina ez dut zertan horretara mugatu. Zerbait adierazi nahi nuen eta horretarako nire bidea egin nuen. Gainera, ez nuke esango zerbait berria egiten ari naizenik. Oso zaila iruditzen zait tradizioaren eta modernoaren arteko muga ezartzea. Azken batean, tradizioa ez bazen aldiro berritu, ez zen guganaino iritsiko. Nik inguruko berezko soinuekin uztartu dut txistua, inprobisatzen dut, baina doinu tradizionalak jotzen ditut. Inoren lana oztopatu gabe, nork bere iritzien arabera lan egitea aberasgarria

JOSEBA ZABALZA



da. Zenbat eta jende gehiagok lan egin, eta zenbat eta modu desberdina goan, hobe.

Saiakera alternatiboak egiteko ere hezkuntza beharrezkoa izango da ordea...

Nork bere burua zenbat landu nahi duen, halako teknika beharko du. Agian, solfeoa ez dakienak gauza asko adieraz ditzake txistuaren bidez. Azken batean, horixe da instrumentuen zeregina, zerbait adieraztea. Polemika sortu izan da. Batzuen ustez, solfeorik ez zekiten txistulariek fama txarra ematen zioten txistuari. Baina eskola zaharreko txistulari onak asko dira.

Eta musika ikasi nahi duenak aurkitzen du arazorik?

Ikasi nahi duenak baino, gizarteak du arazoa. Musika eta, oro har, sorkuntza lana ez dira serio hartzen. Horrek ez du asko laguntzen musikatik bizitzeko erabakia hartzeko orduan. Gainera, kontserbatorioetako plan berriak gero eta goizago behartzen ditu ikasleak erabaki bat hartzea, eta hori oso zaila da.

Txistuaren egoera nolakoa dela uste duzu?

Ona. Txistulariak badaude. Herrietan behintzat asko daude. Gainera, bide berriak ireki nahi dituen gero eta jende gehiago dago, eta aniztasuna beti da ona. Agian harreman gutxi dago txistuaz mota desberdinetako musika egiten dugun artean. Baina ez dakit harreman estuegia ona litzatekeen. Agian, batek bestea kutsatu eta denok antzeko gauzak egingo genituzke.

Proiektu berririk baduzu?

Xabier Erkiziarekin diskoa grabatu ondoren hainbat emanaldi eskaini ditugu. Baina beti gauza bera egiteak aspertzen gaitu. Egia esan, alfer samarra ere banaiz! Udan grabatu ditugu gauza batzuk baina beno, ez naiz Durangoko Azokarako propaganda egiten hasiko! ■